

**FARMAZIA-BULEGOETAKO
JENDAURREKO ORDUTEGIA, GUARDIAKO
ZERBITZUA ETA ALDI BATERAKO IXTEA
ARAUTZEN DITUEN FORU DEKRETUA**

AURKIBIDEA

Atarikoa

Atariko titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea

2. artikulua. Definizioak

1. atala Farmazia-bulegoen jendaurreko orduak

3. artikulua. Lanegunetako jendaurreko ordutegi arrunta

4. artikulua. Ordutegi arrunt murriztua

5. artikulua. Ordutegi arruntaren luzapena

6. artikulua. Igande, jaiegun eta gisakoetako ordutegia

7. artikulua. Farmazialaria egotea eta profesional gisa jardutea

8. artikulua. Ordutegien komunikazioa

2. atala Farmazia-bulegoen guardia-zerbitzuak

9. artikulua. Xedapen orokorrak

10. artikulua. Iruña eta Iruñerriko farmazia-eremuko guardia-zerbitzuen antolamendua

11. artikulua. Tuterako farmazia-eremuko guardia-zerbitzuen antolamendua

12. artikulua. Beste egoera batzuk

13. artikulua. Guardiaren ordutegia

14. artikulua. Guardiako txanden antolaketa:

15. artikulua. Guardiako txanden jendaurreko informazioa

3. atala. Oporrak eta aldi baterako beste zenbait hutsegite

16. artikulua. Xedapen orokorrak

17. artikulua. Jendaurreko informazioa

18. artikulua. Egoera bereziak

Xedapen indargabetzaile bakarra

Azken xedapenetako lehena

Azken xedapenetako bigarrena

Atarikoa

Farmazia-bulegoetako zerbitzuak arautzen dituen apirilaren 25eko 16/1997 Legeak, 6. artikuluan, farmazia-bulegoetako lanaldiari eta zerbitzu-orduei buruzko arauak ditu. Arau horiek Nafarroan aplikatzekoak dira, aipatu artikulua oinarrizkoa baita, Legearen azken xedapenetako lehenean azaltzen denez. Horrenbestez, farmazia-bulegoek askatasun eta malgutasunez eginen dituzte beren zerbitzuak, deusetan galarazi gabe ordutegi ofizialak bete beharra, eta bai guardiako aldi, oporraldi, larrialdi eta zerbitzuaren izaerarekin lotutako gainerako inguruabarrei buruzko arauak ere, autonomia-erkidegoek ezartzen dituztenak, etenik gabeko laguntza bermatzeko xedearekin.

Nafarroako Foru Komunitateak, azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legearen bitartez, farmazia-laguntzaren zenbait alderdi arautu zituen. Haren 22. artikulua ordutegiaz eta jendearentzako informazioaz ari da. Haren arabera, farmaziak libre eta malgu arituko dira lan-orduei dagokienez, baina bete behar dituzte, halere, ordutegi ofizialak eta guardien, oporren, larrialdien eta zerbitzuak dauzkan nolakotasunak ezartzen dituen beste inguruabarren gaineko arauak, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak erregelamendu bidez finkatzen dituen baldintzen arabera, populazioari farmazia laguntza etengabea bermatzeko moduan.

Maiatzaren 26ko 129/2003 Foru Dekretuak farmazia-bulegoen jendaurreko orduak, guardia-zerbitzua eta oporretako aldi baterako ixtea ezartzen ditu, estatuko eta Foru Komunitateko araudia garatuz, herritar orok noiznahi farmazia-laguntza jaso ahal izan dezan. Dena den, arau hori argitaratu zenetik aldaketa ugari gertatu dira farmazia-bulegoetan (irisgarritasuna, errezeta elektronikoa eta beste zenbait egoera), eta, beraz, farmazia-laguntzaren ordutegia eta guardia-zerbitzua erregulatzen dituen araua eguneratu eta aldatu beharra dago.

Erregulazio honen berritasun nagusia da farmazia-eremuaren irudia sartzeko duela, farmazia-bulegoetako guardiak planifikatzeko eta antolatzeke oinarrizko elementu gisa; farmazia-eremu horiek oinarrizko zenbait osasun-eskualde multzokatuz edo banatuz eratu dira.

Horregatik guztiagatik, eta 129/2003 Foru Dekretua aspaldi argitaratu zenez, ezinbestekoa da hura indargabetzea eta foru dekretu honen bitartez erregulazio berri bat ezartzea.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan baimendutako farmazia-bulegoetako jendaurreko ordutegia, guardia-zerbitzua eta aldi baterako ixtea arautzea, herritarren farmazia-laguntza ziurtatze aldera. Hori, premisa hauei jarraikiz:

- a) Farmazia-bulegoek askatasunez eta malgutasunez eginen dituzte beren zerbitzuak. Hori gorabehera, betiere, foru dekretu honetan eta hau garatzeko ematen diren arauetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, ordutegiak, guardia-zerbitzua, oporraldiak eta beste inguruabar batzuk direla eta.
- b) Ohiko zerbitzu-orduetatik kanpo guardiako txandak ezarriz, herritarrei bermatu eginen zaie farmazia-laguntza noiznahi jaso ahal izatea. Guardiako txandan ari den bitartean, farmazialariak nahitaez eman beharreko sendagai eta osasun-produktuak medikuak errezeta bidez agindutakoak izanen dira, besterik ez.
- c) Erregelamendu honetan dauden xedapenak gutxienekoak dira, eta farmazia-bulego guztiek nahitaez bete beharrekoak.
- d) Farmazia-bulegoek jendearentzat irekita dauden bitartean soilik izaten ahalko dituzte pizturik beren identifikazio-elementuak, nola ohiko orduetan hala guardiako orduetan.

2. artikulua. Definizioak

1. Farmazia-eremua: Foru dekretu hau aplikatzearen ondorioetarako, farmazia-eremutzat hartuko dira osasun-eskualde oinarritzkoak edo hurbileko osasun-eskualde oinarritzkoen multzoak edo banaketak, farmazia-establezimendu horien guardia-zerbitzuak antolatzeko ezarriak.

Farmazia-eskualdeak mugatzeko, osasun-eskualde oinarritzkoak hartuko dira erreferentziatzat. Farmazia-eremuek osasun-eskualde oinarritzkoak multzokatu edo banatzen ahalko dituzte.

2.–Guardia-taldea: Farmazia-eremu baten zatia, guardia-zerbitzua antolatzeko.

1. atala. Farmazia-bulegoen jendaurreko orduak

3. artikulua. Lanegunetako jendaurreko ordutegi arrunta

1. Jendaurreko ordutegi arrunta farmazia-bulegoak irekita egon behar duten eta farmazia-laguntza eman behar duten ordutegia izanen da, guardiako txandak salbu.

2. Jendaurreko ordutegi arrunta irizpide hauen arabera antolatuko da:

a) Astelehenetik ostiralera, biak barne, goizez eta arratsaldean egonen dira irekita (egunero berdin): goizean gutxienez lau ordu, 8:00ak eta 15:00ak bitartean, eta arratsaldean gutxienez bi ordu eta erdi, 16:00ak eta 21:00ak bitartean.

b) Larunbatean goizez egonen dira irekita: farmazia-eremuetan eta/edo hirietan gutxienez hiru ordu, eta landa-eremuetan gutxienez bi ordu, bederatzietatik ordu bietara bitartean, salbu Foru dekretu honen 5. artikuluan jasotako kasuetan.

Salbuespenetan, behar bezala justifikatuz gero, farmazia-bulegoek larunbatetan ixtea eskatzen ahalko dute, baldin eta herriko farmazia-bulegoen erdiak irekita badaude eta farmazia-laguntza egokia ziurtatzen bada.

4. artikulua. Ordutegi arrunt murriztua

700 biztanle baino gutxiagoko herrietako farmazia-bulegoek eta herrian irekitako bakarrak diren farmazia-bulegoek, baldin eta herrian osasun-etxerik ez badago, murriztu dezakete aurreko artikuluan adierazitako jendaurreko ordutegi arrunta. Betiere, gutxienezko zerbitzu hauek errespetatu behar dituzte:

a) Astelehenetik ostiralera, biak barne, egunero bost ordu egon behar dute irekita, gutxienez, eta egunero berdin.

b) Larunbatean bulegoa itxi dezakete, baldin eta farmazia-eremuan edo gertuko herriren batean guardiakoak diren farmazia-bulegoekin farmazia-laguntza ziurtatzen bada; guardiako farmazia-bulego horiek hogeita hamar minutu baino gutxiagora egon behar dute.

5. artikulua. Ordutegi arruntaren luzapena

Farmazia-bulegoetako titularrek jendaurreko ordutegi arrunta baino luzeago bat jar dezakete astelehenetik ostiralera; , betiere, egunero berdina. Larunbateko ordutegi-luzapena desberdina izan daiteke astegunetakoaren aldean.

Horrez gain, jendaurreko ordutegi jarraitu bat jar dezakete, urte naturaleko edo guardien urteko programazioko egun guztien 24 orduak hartzen dituen.

6. artikulua. Igande, jaiegun eta pareko egunetako ordutegia

1. Igandeetan eta Nafarroako Foru Komunitatean jaieguntzat hartutako egunetan (herrietako jaiak barne), guardia-zerbitzua ematea dagokien farmazia-bulegoak bakarrik egonen dira irekita, salbu etengabeko ordutegia dutenak eta Gobernuko beste departamenturen batek merkataritza-guneetan egun jakin batzuetan irekitzeko baimendutakoak.

2. Herriko jaien, ekitaldiren baten edo ohiz kanpoko egoeren edo antzekoen ondorioz farmazia-laguntzaren eskariak behera egiten duenean, Osasun Departamentuak baimena eman dezake herri bateko zenbait farmazia-bulego aldi baterako ixteko, baldin eta gutxienez herriko farmazia-bulegoen erdiek irekita jarraitzen badute, goizeko ordutegian. Iruñean eta Tuteran, farmazia-eremua hartuko da oinarritzat azken eskakizun hori betetzeko.

Udan, Osasun Departamentuak baimena eman dezake herri bateko farmazia-bulegoak aldi baterako ixteko, baldin eta herriko farmazia-bulegoen erdiak irekita jarraitzen badu, gutxienez, goizeko eta arratsaldeko ordutegian.

3. Farmazia bakarra duten herrietan ere gauza bera egin daiteke, baldin eta hurbilen irekita daogon farmazia 30 minutura badago, gutxi gorabehera.

7. artikulua. Farmazialaria egotea eta profesional gisa jardutea

1. Farmazia-bulegoan farmazialari bat egotea eta profesional moduan jardutea ezinbestekoa da jendeari sendagaiak eman ahal izateko. Laguntzaileak izan nahiz ez izan, jendaurreko orduetan farmazialariak nahitaez jardun behar du farmazia-bulegoan, profesionala den aldetik, eta erantzukizun osoa izanen du.

2. Ordutegi arrunta edo murriztua duten farmaziei dagokienez, farmazialariak bertan egon beharrak esan nahi du farmazia-bulegoko titularrak edo farmazialari zuzendariak edo ordezkoko farmazialariak egon behar duela, salbu behar bezala justifikatuta huts egiten badu.

Hiru egun baino gehiagotan huts egingen badu (justifikatuta), farmazia-bulegoko titularrak aurrez jakinarazi behar dio Osasun Departamentuari zein farmazialarik ordeztuko duen.

3. Farmazia-bulegoek farmazialaria egotea eta profesional gisa jardutea ziurtatzeko adina farmazialari izan behar dituzte, jardueren aniztasuna eta jendaurreko ordutegi luzatuak kontuan harturik.

Farmazia-bulegoak optika-atala, ortopedia-atala edo audioprotesi-atala izateko baimena badu, eta titularra atal horietakoren baten arduradun teknikoa bada, gutxienez farmazialari bat gehiago eduki behar du.

Ordutegi luzatua izanez gero, farmazia-bulegoaren jendaurreko ordutegi osoan farmazialari bat egonen dela eta profesional gisa jardunen duela ziurtatu eta justifikatu behar da, agirien bitartez. Zehazki, farmazialari gehigarrien zerrenda eta ordutegi osoa betetzeko txandean plana aurkeztu behar dira.

8. artikulua. Ordutegien komunikazioa

1. Farmazia-bulegoetako titularrek aurrez jakinarazi behar diote Osasun Departamentuari farmazia-bulegoak jendaurreko zer ordutegi izanen duen ezarritako prozeduraren arabera eta Osasun Departamentuak jarritako baliabide informatikoen bitartez, bai eta izan behar

duten aldaketa guztien berri ere. Osasun Departamentuak baimendu edo ukatu egingen du ordutegi hori, foru dekretu honetan jasotako irizpideen arabera.

Eguneko guardiak egiten dituzten farmazia-bulegoei dagokienez, ordutegi luzatua dutenek ordutegi bera izan behar dute guardien urteko programazio osoan.

2. Farmazia-bulegoetako titularrek zein ordutegi duten jakinarazten ez badute edo jakinarazpena eskatu bezala zuzentzen ez badute, jendaurreko ordutegi hau izanen dutela ulertuko da: Goizez bederatzi eta erdietatik ordu bata eta erdietara, eta arratsaldeaz lau eta erdietatik zazpi eta erdietara; udan, arratsaldeko ordutegia ordu erdi luzatuko da.

3. Foru dekretu hau indarrean sartu eta gero jendearentzat irekitzen diren farmazia-bulegoek ireki aurretik jakinarazi beharko diote Osasun Departamentuari beren ordutegi-plana.

4. Farmazia-bulegoek jendaurreko ordutegia agerian eta ongi ikusteko moduan izanen dute beti.

5. Nafarroako farmazia-bulegoen jendaurreko ordutegiak Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren webguneetan egonen dira eskura, eguneratuta.

2. atala. Farmazia-bulegoen guardia-zerbitzuak

9. artikulua. Xedapen orokorrak

1. Jendearentzako irekita dauden farmazia-bulego guztiek nahitaez hartu behar dute parte ezartzen diren guardia-zerbitzuetan, etengabeko farmazia-laguntza ziurtatzeko.

2. Guardia-zerbitzuak foru dekretu honen I. Eranskinean jasotako farmazia-eremuak oinarritzat hartuta antolatutako dira. Oro har, eta foru dekretu honetan ezartzen diren irizpideen kalterik gabe, farmazia-eremu bakoitzean guardiako farmazia-bulego bat egon behar du, gutxienez.

3. Egunean 24 orduko etengabeko ordutegia duten farmazia-bulegoak eta astelehenetik ostiralera 12 orduko ordutegi luzatua duten farmazia-bulegoak kontuan hartuko dira dagozkien farmazia-eremu eta guardia-taldeen guardia-zerbitzuak betetzeko.

4. Nafarroako guardien programazioa urtarrilaren 6aren ondoko astelehenean hasiko da urtero, eta hurrengo urteko urtarrilaren 6aren ondoko igandean amaituko da.

Guardien behin betiko programazioa abenduaren 8aren ondoren jasoko dute urtero farmazia-bulegoek.

10. artikulua. Iruña eta Iruñerriko farmazia-eremuko guardia-zerbitzuen antolamendua.

1. Guardia-zerbitzuak antolatzeko, Iruña eta Iruñerriko farmazia-eremua I. Eranskinean jasotako guardia-taldeetan banatua dago:

2. Iruña eta Iruñerriko farmazia-eremuan, etengabeko farmazia-laguntza honela dago antolatuta:

a) Eguneko ordutegian guardiako lau farmazia-bulego egonen dira, gutxienez; hau da, I. Eranskinean jasotako guardia-talde bakoitzeko farmazia-bulego bana.

b) Gaueko ordutegian, eta orokorrean, gutxienez bi farmazia-bulego guardian egoteko moduan antolatuko dira guardia-zerbitzuak; farmazia-bulego horietako bat, gutxienez, Iruñean egonen da.

c) Eguneko ordutegian, farmazia-bulego bat beste batek ordeztzen badu, biek guardia-talde berekoak izan behar dute. Horrela egiterik ez bada, mugakide duen guardia-talde bateko farmazia-bulego batek ordeztzen ahalko du, baldin eta batetik bestera 1000 metro baino gehiago ez badaude (lerro zuzenean neurtuta) eta guardiako txanda duen beste farmazia-bulego batetik 500 metro baino gutxiagora ez badago (lerro zuzenean neurtuta).

11. artikulua. Tuterako farmazia-eremuko guardia-zerbitzuen antolamendua.

Guardia-zerbitzuak antolatzeko, Tuterako farmazia-eremua I. Eranskinean adierazitako oinarritzko eremuez osatuta dago.

Farmazia-eremu honetako guardia-zerbitzua hau izanen da: eguneko eta gaueko ordutegian farmazia-bulego bana.

12. artikulua. Beste kasu batzuk.

Guardia-zerbitzuak antolatzeko, gainerako eremu eta herriak I. Eranskinean adierazitako farmazia-eremuetan banatuta daude.

Farmazia-eremuan osasun-etxea duen herriren bat badago, guardia-zerbitzua antolatzen ahalko da herri horretako farmazia-bulego batek beti guardia egiteko moduan, baldin eta eremuko farmazia-bulegoak ados badaude. Gainerako farmazia-bulegoek aukera hauek izanen dituzte:

a) Guardia-zerbitzurik ez egitea, baldin eta farmazia-eremuko gainerako titularrak ados badaude eta osasun-etxea dagoen herrirako bidea hogeita hamar minutu baino gutxiagoan egin badaiteke.

b) Oinarritzko osasun-eskualdeko farmazia-bulego guztiek txandan parte hartuko balute legokiekeen maiztasun berarekin sartzea guardia-zerbitzuen antolaketan.

13. artikulua. Guardiaren ordutegia.

1. Guardia-zerbitzuak eguneko hogeita lau orduak hartzen ditu, goizeko bederatziatan hasi eta biharamun goizeko bederatziak arte, honela:

- Eguneko ordutegia: goizeko bederatzietatik gaueko hamarretara.
- Gaueko ordutegia: gaueko hamarretatik goizeko bederatzietara.

Iruña eta Iruñerriko farmazia-eremuan eta Tuterako farmazia-eremuan, eguneko guardiak goizeko hamarretatik gaueko bederatzietara egingen dira, eta gauekoek bederatzietatik goizeko hamarretara.

2. Guardia-zerbitzua aste-kontuan antolatzen ahalko da, egun bateko ordu batean hasi eta hurrengo asteko egun bereko ordu berean amaituz.

3. Herri hauetako farmazia-bulegoetan ezinbestekoa da guardiako txandak irauten duen bitartean farmazialari bat egotea, asteko egun guztietan, igande eta jaiegunak barne: Iruña, Berriozar, Antsoain, Burlata, Atarrabia, Uharte, Mutiloa, Barañain, Zizur Nagusia eta Tuterara.

4. Aurreko atalean jasota ez dauden herrietan, farmazialariak gutxienez ordu hauetan egon behar du farmazia-bulegoan: astelehenetik ostiralera, farmazia-bulegoaren ohiko ordutegian; larunbatetan, goizeko bederatzia eta erdietatik eguerdiko ordu bata eta erdietara; eta igande eta jaiegunetan eguerdiko hamaiketarik ordu batera.

Gainerakoan, guardia-zerbitzua modu lokalizatuan ematen ahalko da; betiere, farmazialariak ziurtatu behar du zerbitzua hogeita hamar minutu baino gutxiagoan ematea. Guardiako farmaziak zein diren eta non dauden jakiteko sistema bat ezarriko da, farmazia-laguntza etengabea dela eta deien trazabilitatea eta intzidentzien kudeaketa egokiak direla ziurtatzeko.

14. artikulua. Guardia-txanden antolaketa.

1. Farmazia-bulego berriak ireki eta gutxienez hogeita hamar egunera sartuko dira guardiako txandetan.

2. Kasu hauetan baimentzen ahalko da guardiako txanden antolaketan ez parte hartzea:

- Farmazia-bulegoak salbuestea eskatzen duenean eta dagokion farmazia-eremu edo guardia-taldeko gainerako farmazia-bulegoek salbuespen hori onartzen dutenean.

- Farmazia-eremu edo guardia-taldean ordutegi luzatuarekin etengabeko farmazia-laguntza betetzen duten farmazia-bulegoak daudenean.

3. Guardiaren programazioari dagokionez, titularrek guardiak aldatzea eska diezaiokete Osasun Departamentuari, gutxienez hamabi egun lehenago eta, betiere, etengabeko farmazia-laguntzari kalterik egiten ez badiu. Osasun Departamentuak horretarako jarritako aplikazio informatikoaren bitartez jakinaraziko die titularrei guardiako txandaren aldaketa baimendu edo ukatu duen.

15. artikulua. Guardiako txanden jendaurreko informazioa.

1. Osasun Departamentuak bere webgunearen bitartez emanen du ezarritako guardia-zerbitzuen berri, astebete lehenago, gutxienez, eta hedabideei bidaliko dizkie, zabal ditzaten. Osasun Departamentuaren webgunean guardiako txanden kopiak eskuratzen ahalko dira, farmazia-bulegoetan ikusgai jartzeko.
2. Farmazia-bulegoek kanpoaldean jarrita eduki behar dute beti, ikusteko moduan, zein den edo diren hurbileneko guardiako farmazia-bulegoak, dagokion farmazia-eremukoak barne, eta baita hurbilen dauden farmazia-bulegoak ere.

3. atala. Oporrak eta aldi baterako beste zenbait hutsegite

16. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Oporrei dagokienez, gutxienez bi farmazia-bulego dauden herrietan, jendaurreko farmazia-bulegoak urtean sei astez itxi daitezke, gehienez. Herri bateko jendaurreko farmazia-bulegoen erdiak baino gehiago ezin dira aldi berean oporreatatik itxi. Aldi berean ixtea eskatu izanez gero, eskaria lehendabizi egin duen farmazia-bulegoak izanen du lehentasuna. Geroko eskariekin txandak ezarriko dira.

2. Salbuespen gisa, jendaurreko farmazia-bulego bakarra dagoen herrietan, urtean bi astez ixten ahalko dute, baldintza hauek betez gero:

- Hurbilen dagoen farmazia-bulegorako bidea hogeita hamar minutu baino gutxiagoan egin ahal izatea.

- Itxi nahi den egunetan guardiako txandarik ez izatea. Aldi horretan guardia egitea badagokio, farmazia-eremu bereko beste farmazia-bulego batekin aldaketa adostu izanaren agiria aurkeztu beharko du.

3. Farmazia-bulegoko titularrek gutxienez hiru egun baliodun lehenago jakinarazi behar diote Osasun Departamentuari farmazia-bulegoa aldi batean itxita egonen dela oporreatatik edo beste edozerengatik.

Osasun Departamentuak egiaztatuko du eremu horretan farmazia-laguntza behar bezala ziurtatuta geratuko dela eta ez dagoela beste farmazia-bulegorik aldi berean ixteko lehentasuna duenik. Hala ez bada, aldi horretan farmazia-bulegoa ezin duela itxi jakinaraziko dio interesdunari. Farmazia-bulegoa ixteko aldia baino lehen Osasun Departamentuak jakinarazpenik bidaltzen ez badu, titularrak farmazia-bulegoa ixten ahalko du.

4. Osasun Departamentuak gehienez sei hilabeteko itxialdiak baimendu ditzake. Aldi hori hiru hilabetez luza daiteke, arrazoiak behar bezala justifikatuz gero. Itxialdia amaitu eta farmazia-bulegoa ireki ez bada, Osasun Zuzendaritza Nagusiak ebazpena emanen du, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legearen 51. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

17. artikulua. Jendaurreko informazioa.

Farmazia-bulegoak oporreatatik edo beste arrazoiren batengatik ixteko baimena badu, bide publikotik ikusteko moduan adierazi beharko du eta, gainera, hurbilen dauden farmazia-bulegoen eta haien guardiako txanden berri emanen du.

18. artikulua. Egoera bereziak.

1. Herri edo farmazia-eremuren batean, ohiz kanpoko egoeraren bat dela eta (osasun-larrialdi bat, adibidez) farmazia-laguntzaren eskariak gora egiten badu, Osasun Departamentuak jendaurreko ordutegiak eta guardia-zerbitzuak aldatzen ahalko ditu, farmazia-laguntza egokia dela ziurtatzeko.

2. Salbuespenezko kasuetan, farmazia-jarduera bereziko osasun-eskualde oinarritzekoetan, Osasun Departamentuak baimendu dezake farmazia-bulegoen gaueko txandak kentzea, baldin eta maiztasun handiko guardiako txandak badituzte eta farmazia-laguntzaren eskaria urria bada; hori, farmazia-bulegoen iraupena ziurtatzeko. Gaueko guardiako txandetatik salbuestea baimentzeko, dokumentu bidez justifikatu beharko da etengabeko farmazia-laguntzaren eskariak behera egin duela, eta ados egon beharko dute farmazia-eremuko herrietako udalek eta, hala badagokio, oinarritzeko osasun-eskualdeko Osasun Kontseiluak.

Xedapen indargabetzaile bakarra

Indarrik gabe uzten dira farmazia-bulegoetarako jendea hartzeko ordutegia, zaintzako zerbitzua eta oporraldia ezartzen dituen maiatzaren 26ko 129/2003 Foru Dekretua eta foru dekretu honetan xedaturikoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena

Osasuneko kontseilariari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko; bereziki, foru dekretu honen I. eranskinean jasotako eremu eta guardia-zerbitzuak aldatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Hala eta guztiz ere, 9.4 artikuluko aurreikuspenek foru dekretu hau indarrean jarri eta hiru hilabetera izanen dute eragina.

I. ERANSKINA

I. Iruña eta Iruñerriko farmazia-eremua:

I guardia-taldea: Iturrama OEO, Noain Elortzibar OEO, Azpilagaña OEO, Alde Zaharra OEO eta Zabalgunea OEO.

II guardia-taldea: Donibane OEO, Zizur OEO, Barañain OEO, Ermitagaña-Mendebaldea OEO eta Etxabakoitz OEO.

III guardia-taldea: Antsoain OEO, Berriozar OEO, Orkoien OEO, Buztintxuri OEO, Txantrea OEO, Arrotxapea OEO eta Sanduzelai OEO.

IV guardia-taldea: Aranguren OEO, Burlata OEO, Uharte OEO, Atarrabia OEO, Lezkairu OEO, Mendillorri-Sarriguren OEO, Arrosadia eta Olague OEO.

II. Tuterako farmazia-eremua: Tutera Ekialdea OEO eta Tutera Mendebaldea OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

III. Tutera aldeko farmazia-eremuak

I guardia-taldea: Corella OEO, Cintruénigo OEO eta Valtierra eta Arguedas.

II guardia-taldea: Buñuel OEO eta Cascante OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

IV. Azkoiengo farmazia-eremua: Azkoiengo OEO, Milagro, Alesbes eta Cadreita.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- V. Erriberri-Zarrakazteluko farmazia-eremua: Zarrakaztelu OEO eta Erriberri OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- VI. Tafalla-Artaxoako farmazia-eremua: Tafalla OEO eta Artaxoa OEO.

Guardiako bi farmazia egunez (Tafalla eta Artaxoa) eta guardiako farmazia bat gauez (Tafalla).

- VII. Lodosako farmazia-eremua:

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- VIII. San Adriango farmazia-eremua: San Adrian OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- IX. Lizarreerriko farmazia-eremua:

I guardia-taldea: Lizarra OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

II guardia-taldea: Villatuerta OEO, Allo OEO eta Antzin-Ameskoa OEO.

Guardiako farmazia bat egunez.

- X. Doneztebe-Elizondoko farmazia-eremua: Doneztebe OEO eta Elizondo OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- XI. Lesakako farmazia-eremua: Lesaka OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- XII. Leitza-Irurtzun-Etxarri-Ultzamako farmazia-eremua: Leitza OEO, Irurtzun OEO, Etxarri Aranatz OEO eta Ultzama OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- XIII. Altsasuko farmazia-eremua: Altsasu OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

- XIV. Viana-Los Arcosko farmazia-eremua: Viana OEO eta Los Arcos OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

XV. Garesko farmazia-eremua: Gares OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.

XVI. Agoitz-Aurizko farmazia-eremua: Agoitz OEO eta Auritz OEO.

Guardiako farmazia bat egunez.

XVII. Izaba-Zaraitzuko farmazia-eremua: Izaba OEO eta Zaraitzu OEO.

Guardiako farmazia bat egunez.

XVIII. Zangozako farmazia-eremua: Zangoza OEO.

Guardiako farmazia bat egunez eta gauez.